

## Diru sarrerak

Gure proiektuan aurkeztutako aplikazio honen erabilera sinpleena dohainik izango da, baina "Prime" atalak prezio zehatz bat edukiko du. Diru sarrera nagusiak iragarkietatik lortuko ditugu. Iragarki hauek, gehien bat arropa dendetakoak izango dira. Dirua irabazteko, gure aplikazioan, dendetako edo beste aplikazio batzuen iragarkiak edukiko ditugu. Gure aplikazioan, dendetako iragarkiak jartzeagatik, ordaindu beharko gaituzte, eta horrela, dirua irabaziko dugu. Alde batetik, gehien egongo diren iragarkiak Nike, Adidas, Zara, Off-White, Grimey... izango dira, baina, beste iragarki batzuk ere agertu daitezke, adibidez, jokuetakoa iragarkiak, Clash Royale, FifaMobile, CundyCrush... Joku iragarki hauek, iragarkien %5a izango dira. Beste denda batzuetako iragarkiak ere agertu daitezke %10eko portzentailan, adibidez, Game, Eroski, Vueling...

Iragarki hauetatik salbu egoteko (iragarkirik ez agertzeko), "Prime" atal bat egongo da ("DALANPrime" izenekoa), honek hilabetero 7.99 euroko balioa izango duena.

"Prime" atal honekin, aplikazioa 60 egunetan erabiltzen baldin baduzu (gutxienez konbinazio bat egunean), %5eko deskontua lortzen duzu gure aplikazioan erosteko garaian. Beste 60 egunekin %5 gehiago lortuko duzu (guztira %10), horrela, etorkizunean, gure aplikazioan saldutako produktuetan, deskontua lortzen duzu. Gehienez, %35ko deskontua lortu ahal izango duzu. Gainera "Prime"-a baldin baduzu, "Prime"-a bukatu baino lehen beste hilabete bat gehiago kontratatzen baduzu, 7.99 euro balio beharrean, 5.19 euro balioko dizu. Eta hilabetero erosten jarraitzen baduzu 5.19 euro balioko dizu beti.

"Prime"-a kontratatzen ez baduzu, 60 konbinazio egiterakoan (60 egunetan), %5eko deskontua lortu beharrean, %2.5eko deskontua lortuko duzu. Gehienez %10eko deskontua lortu ahal izango duzu.

Deskontu hau, gure dendetako produktuetan erabili ahal izango da bakarrik. Horrela guztiok errentagarritasuna lortuko dugu. Erosleak, aplikazioaren "Prime"-a kontratatzen duena, gustuko dituen gauza batzuetan deskontua lortu ahal izango duelako.

Guri ere errentagarria aterako zaigu deskontuak egitea, "Prime"-a kontratatzen duten pertsonak ordaintzen duten kantitatearekin dirua irabaziko dugu, eta gainera, arropa dendetan asko erosterakoan deskontuak egiten dituztelako eta hor egongo delako gure irabazteko tartea.

"Prime"-ak eskaintzen duen beste aukera bat hurrengoa da: Zure kezka edo zailtasunen aurrean pertsona bat edukiko duzu behar duzunarekin laguntzeko. Adibidez, galderaren bat edukitzekotan gure enpresako aditu batekin harremanetan jartzeko erraztasun handiagoa izango duzu. Galderetarako atalarentzako zerrenda bat egongo da "Prime" atala kontratatu ez dutenek, itsarote zerrendan ordenean joango dira, eta ahal dugun bezain laster kontaktatuko dugu. "Prime" atala kontratatu duten pertsonak, beste zerrenda batean egongo dira, bertan aditu gehiago egongo dira, horrela, azkarrago lortuko duzu gure aditu batekin kontaktuan jartzea. Baita ere, aplikazioak sortzen dituen konjuntuekin deseroso dagoen pertsona bat 'prime' atalarekin, asteko konjuntu guztiak sortzeko eskatu ahalko diozu eta

honela gure langileari esan zer arropa mota eraman nahi duzun egunero, modan aditua den pertsona bat egiteko.